

Jesusen Lagundia Euskal Herrian

Aurreko hilabeteetan, Erdi Aroko Euskal Herrian izandako Institutu Erlijiosoak gogoratu dizkiot irakurleari, denak gurera erbestetik etorriak. Orain, urtea amaitzean, euskaldun batek Aro Modernoan sortutako lagunarte batekin itxiko dut 2007ko lana, Jesusen Lagundiarekin.

Lagundiaren sortzailea, Iñigo Loiolakoa, 1491n jaio zen Loiolako dorre-etxean (oinaztar-loiolarren leinukoa zen), eta Erroman hil zen 1556an. Beraz, Ernazimentuko eta Erreforma erlijiosoen sortze-garaiko gizona izan zen Ignazio, eta une eta giro horren barruan ikusi behar dira Jesusen Lagundiaren sorrera eta lehen hazkundera.

Lagundiaren sortze-urteak (1534-1556)

Parisen lehenengo lagunak elkartu zitzaizkionetik (1534: horien artean zegoen Frantzisko Jaso, Xabier-koa), elkarren arimoan egingo dute Ordena berria sortzerainoko bidea (1540). Aita Santuaren esanetara jarriko dira erabat, herrietan eta nazioartean garaiko erronkei erantzuteko. Aurreko mendeetan Cluny, Clairveaux eta Eskeko Ordenak bezalatsu, baina Aita Santuekiko militantzia espresu batekin.

Erlijioso-bizitzari heltzean, Lagundiak garaiko zeregin handietarako biziera egokituagoa hartu zuen, monje eta fraideen koruko talde-otoitza izango da, gogo-otoitzak pertsonala izango da jesuitarena; apostolutzak eskatzen zuen mugikortasuna izango du lege, betiere agintarien esaneko delarik. Ordenak gobernu zentralizatua izango du, bizialdi osorako Jenerala aukeratuz.

San Ignazioren Gogo-Jardunak deritzan liburuak moldatuko du jesuiten espiritualitatea (1522); berori da norberaren konbertsio-unek

eta betiko gidaliburua. "Jainkoaren Aintza Handiagorako" (AMDG) antolatuta nahi dira bizitza pertsonala eta Ordenarena.

Lagundiak predikua, misioa eta kultura izango ditu lanerako tresnak, Europako Mendebaldean bezala mundu berrietako lurretan (India, 1542; Japonia, 1549; Amerika, 1553). Berehala, Kontrarreforma Katolikoko Erakunde nagusia geratu zen XVI. mendean Jesusen Lagundia.

San Ignazio hiltzean, 1.000ren bat jesuita zeuden, baina mende-erdi bat geroago Aquaviva Jeneralarekin (1581-1615) 12.000 izatera helduko dira. Arrakasta horretaraino etorri aurretik jesuitak Euskal Herrian ere beren etxeak irekita zituzten.

Jesulagunak Euskal Herrian (1551...)

Iñigo Loiolakoa erbestera joan eta han biziarren, ez zen arduragabetu Euskal Herriaz. Eta euskaldunek ere ez zuten ahaztu Lagundiaren fundatzailea. Sorterriarekiko lotura hori, besteak beste, San Frantzisko Borja-koa hemen "gordetzean" (Oñati, 1551) edo garaiko Kalahorrako Luku Gotzainarekin izandako eskutitz-harmanetan garbiki ageri zaigu (1545-1552), euskal Hegoaldeko mendebaldea Gotzaindegi horren mende baitzegoen orduan.

1550.eko hamarkadan, Arantzazu erreberria (1553) berreraikitzeke hemendik Erromara lagun-



tza eskatu zitzaion, eta orduan gogoratu zuen Ignaziok Santutegian pasatutako gaualdia. Era berean, Lukuk behin eta berriz eskatuta bere lehenengo jesuitetako batzuk predikari bezala bidali zituen hona. Eta euskarazko predikuaren zerbitzua oso gogoan izan zuten Ignaziok eta Luku Gotzainak. Lagundiaren lehen orduko euskal historia da hau.

Aita Pinedo-k laburtu digu Lagundiak Euskal Herrian izandako historia, inondik ere ez esandako prediku-lanera mugatua, baizik eta Euskal Herriko kultura idatzian eta irakaskuntzan sekulako zerikusia izan duena, garai zaharretan bezala berriagoetan ere.

Jakina denez, bi garaitan banatzen da Jesu-sen Lagundiaren historia: Lagundi Zaharrarena (1540-1773) eta Lagundi Berriarena (1814...); bi aldiotan egon dira Euskal Herrian jesulagunak, nahiz eta ez duten izan beti euskal herrialde guztietan horretarako erraztasunik (Baiona eta Arabako kasuak).

Lagundiaren Etxeak apurka-apurka joan ziren irekitzen euskal hiri eta herrietan, batzutan lkas-tetxe bezala, eta bestetan, prediku eta pastora-lerako Egoitza gisara. lkastetxeen artean zeuden Oñati/Bergara (1551, 1597), Iruñea (1584), Tute-ra (1600), Bilbo (San Andres, 1604), Donostia (1627), Loiola (1681), Lekeitio (1693) eta Gasteiz (1751). Azkoitia (1600), ostera, Egoitza zen, eta era bere-an inoiz lkastetxea baino lehen, edo ondoan, egon zen beste horrelakorik ere (Tutera, 1578-1600, 1877-1890).

Horiek dira Lagundi Zaharreko fundazioak. Ins-titutua juridikoki izan berritu (1814) eta beronek Esklaustrazioari gaina hartzean (1852), Lagundi Berriak Euskal Herrian ere bere Egoitza-lkastetxeak irekitzeko ahaleginak egin zituen, eta horren

emaitza izan dira, adibidez, Deustu Unibertsita-tea (1886) eta Donostiako ESTE (1956), Urduña (1870), Donostia, Tutera, Durango eta Xabier-ko lkastetxeak, Bilbo eta Donostiako Egoitzak.

Azpimarratu beharra dago hemen, Lagun-diko euskal erakundeek eta jesuitek euskaraz-ko kulturaren ere izan duten lekua: M. Larramen-diren (1690-1766) lana (Gramatika, 1729; Hitzeg-ia, 1745) eta ingurukoen loraldia (Kardaberaz, †1770; Mendiburu, †1782). Hauek denak gerta-kari handia izan ziren, eta Hegoaldeko euskara idatziaren benetako sortze-unea. Gero, XX. men-dean, hasiera hark Idazle-Eskola oso bat izan du Lagundian, Arana eta Estefaniarekin hasi eta Patxi Altunarekin burutu dena, zenbait jesuita ohi ere tartean dugula (Orixe, Lauaxeta, Zaitegi eta abar). Azkenik, eman diote lekurik euskal goi-kultura-ri Unibertsitatean ere: adibidez, 1960etatik hona Deustuko Unibertsitatean (Historia, Filologia).

Jesulagunen Hego Euskal Herria, beste zen-bait lurralderekin batera, Probintzia erlijioso ezberdinetan egon da XVI-XX. mendeetan, harik eta 1962an Hegoaldeko lau Herrialdeen beren Loiolako Probintzia izan duten arte. Irtenbide ins-tituzional eredugarria, noski, beste Institutu asko-rentzat ere. 2002an 354 jesuita zituen Probintzia honek.

Joseba Intxausti

Gehiago jakiteko

TELLECHEA IDIGORAS, J. I. (2007): *Ignacio de Loyola, solo y a pie*. Salamanca: Ediciones Sígueme. (Euskaraz: *Loiolako Inazio, bakarrik eta oinez*. Donostia: Etor).

PINEDO, I. (2004): "Jesuitas en el País Vasco / Navarra", in: (2004): *Euskal Herriko Erlijiosoen Historia*. Arantzazu: II, 569-584.

Galderak eta oharrak: 610-273580